

INFORMAZIO-ZIRKULARRA: LANBIDE ARTEKO GUTXIENENKO SOLDATA

Langileen Estatutuaren Legeko 27.1 artikuluaen edukiari jarraiki, eta *abenduaren 26ko 1106/2014 Errege Dekretuaren* bitartez, langile finkoentzat nahiz behin-behineko edo sasoiko langileentzat eta etxeko langileentzat 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean egon behar duten zenbatekoak ezarri dira.

Zenbateko berriek % 0,5eko igoera izan dute 2014ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra indarrean egon direnekin alderatuta, eta Langileen Estatutuko lehen aipatutako 27.1 artikuluan aurreikusitako faktore guztiak batera kontuan hartzearen ondorioa da.

*1106/2014 Errege Dekretuko 1. Artikulua*ren arabera, lanbide arteko gutxieneko soldata 21,62 euro/eguneko edo 648,60 euro/hileko izango da, soldata nola finkatu den kontuan hartuta, eguneko edo hileko. Halaber, *1106/2014 Errege Dekretuko 3. artikulua* xedatzen duenaren arabera, urteko gutxieneko soldatak ezin du izan 9.080,40 eurotik beherakoa.

2015EKO LANBIDE ARTEKO GUTXIENENKO SOLDATA	
LGS eguneko	21,62 euro
LGS hileko (14 paga)	648,60 euro
LGS urteko	9.080,40 euro

Etxeko langileentzat, gutxieneko soldata **5,08 eurokoa** izango da benetan lan egindako **orduko**, *azaroaren 14ko 1620/2011 Errege Dekretuko 8.5 artikulua*ren arabera.

Behin-behineko eta sasoiko langileei dagokienez, baldin eta enpresa berean egiten dituzten zerbitzuek ehun eta hogeitaz egun gairatzen ez badituzte, 1. artikulua aipatzen duen gutxieneko soldata jasoko dute, eta baita igande eta jaiegunetako ordainsariaren eta aparteko bi haborokinen zati proportzionala ere, bakoitzean hogeita hamar eguneko soldatari dagokiona. Lanbide arteko soldataren zenbatekoa ez da inoiz izango **30,72 eurotik beherakoa** jardueran egindako **legezko lanaldiko**.

Errege Dekretu hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta 2015eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko aldiari izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 3a